Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo / Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, UDAL OSOKO BILKURAK EMITITU, GRABATU ETA BILKURA HORIEN BIDEO-AKTAK SORTU ETA EDITATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE EMISIÓN, GRABACIÓN, GENERACIÓN Y EDICIÓN DE VIDEO ACTAS DE LAS SESIONES DEL PLENO MUNICIPAL.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza teknikoen agiri honen helburua da Eibarko Udalak egiten dituen ohiko eta ezohiko Osoko bilkurak grabatu eta bideo-aktak sortu eta editatzeko sistemaren zerbitzua kontratatzea. Sistemak aukera eman behar du bilkura horiek zuzenean Internet bidez emateko eta bideoan grabatzeko, bai eta dagokion bideo-akta sortzeko ere.

Sistemak bideo-akten zerbitzu integrala eta harekin lotutako grabazio- eta streaming-zerbitzuak eskaini beharko ditu, urtean 15 Udal Osoko bilkuretarako (11 ohikoak eta 4 ezohikoak). Sistemak jaso behar dituen zerbitzu espezifikoak honako hauek dira:

- Osoko bilkurak grabatzea eta streaming bidez ematea.
- Osoko bilkurak modu telematikoan egiteko aukera ematea, baita grabatzea eta streaming bidez ematea ere.
- Osoko bilkura bakoitzari dagokion bideo-akta sortzea eta editatzea.
- Autentifikatzea eta sinadura elektronikoa.
- Indexazio- eta bilaketa-zerbitzua.
- Estandarrak eta lege-eskakizunak betetzea.
- Konponbideak web-plataforma bat izan beharko du osoko bilkurak zuzenean emititzeko eta ostatatzeko, dagokion gai-zerrendarekin eta aktarekin Era

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del presente pliego de prescripciones técnicas es la contratación del servicio de un sistema de grabación, generación y edición de video actas de las sesiones de Pleno que celebre el Ayuntamiento de Eibar, con carácter ordinario y extraordinario. El sistema debe permitir la retransmisión en directo por Internet y la grabación en video de las citadas sesiones, así como la generación del video acta correspondiente.

El sistema deberá proporcionar el servicio integral de video actas y sus servicios asociados de grabación y streaming para un total de 15 Plenos municipales por año (11 ordinarios y 4 extraordinarios). Los servicios específicos que debe incluir el sistema son los siguientes:

- Grabación de los Plenos y retransmisión en streaming.
- Posibilidad de realizar los Plenos de forma telemática, incluyendo grabación y retransmisión en streaming.
- Generación y edición del video acta correspondiente a cada sesión plenaria.
- Autenticación y firma electrónica.
- Servicio de indexación y búsquedas.
- Cumplimiento de estándares y requisitos legales.
- La solución deberá incluir una plataforma web para el alojamiento y la emisión en directo de las sesiones plenarias, con su correspondiente orden del día y acta. Asimismo, deberá incluir el

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **035aa4cb0afa9980aa77e87d1f946883de50dd1f**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202100000088**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO	**18/06/2021 11:44:26**

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo / Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

berean. Udalaren bideo-akten historikoa jaso beharko du.

histórico de video actas del Ayuntamiento.

2. ZERBITZUEN IRISMENA

2. ALCANCE DE LOS SERVICIOS

2.1. Osoko bilkurak grabatzea eta streaming bidez ematea.

2.1. Grabación de los plenos y retransmisión en streaming.

2.1.1. Zerbitzuak kontratuaren indarraldian egiten diren ohiko eta ezohiko Osoko bilkurak grabatu eta zuzenean emango ditu. Konponbideak aukera izan behar du bilkurak Internet bidez zuzenean emateko, dela adjudikaziodunak berak emandako streaming-zerbitzu baten bidez, dela merkatuan eskuragarri dauden streaming-zerbitzu estandarrekin, ordainpekoak edo doakoak. Zehazki, adjudikaziodunak hartuko du zuzeneko emanaldia eta Eibarko Udalaren YouTubeko kontu ofiziala lotzeko ardura. Bilkurak telematikoki egiten direnean ere erabiltzen den aplikazioa YouTubeko kontu horrekin lotu beharko da.

2.1.1. El servicio contemplará la grabación y retransmisión en directo de los Plenos municipales ordinarios y extraordinarios que se celebren en el periodo de vigencia del contrato. La solución propuesta deberá tener la posibilidad de retransmitir por Internet los plenos en directo a través, bien de un servicio de streaming proporcionado por el adjudicatario o con servicios de streaming estándar disponibles en el mercado, de pago o gratuitos. En concreto, el adjudicatario se responsabilizará de enlazar la retransmisión en directo con la cuenta oficial de YouTube del Ayuntamiento de Eibar. Cuando las sesiones se emitan telemáticamente también deberá enlazarse la aplicación que se utilice con dicha cuenta de YouTube.

2.1.2. Kontratuaren adjudikazioduna arduratuko da edukiak zuzenean egin eta emateaz eta behar bezala aurkezteaz, Osoko bilkuran parte hartzen duten Udalbatzako kide bakoitzaren izen-abizenak eta haren talde politikoa identifikatzeaz eta errotulatzeaz. Era berean, 5 segundoz identifikatuko da dagokion gai-zerrendaren puntua.

2.1.2. El adjudicatario del contrato se encargará de la realización y emisión de los contenidos en directo y de su correcta presentación, con identificación y rotulación del nombre, apellidos y grupo político al que pertenece cada uno de los miembros de la Corporación Municipal que intervengan en el desarrollo de la sesión plenaria. Igualmente, se identificará durante 5 segundos el punto correspondiente del orden del día.

2.1.3. Adjudikaziodunak interbentzioak Udalaren webgunean iframeen bidez txertatzeko aukera emango du, Udalbatzaren idatzizko aktan aipatu ahal izateko.

2.1.3. El adjudicatario posibilitará la integración en la web municipal mediante iframes de las intervenciones para poder referenciarlas en el acta escrita del Pleno municipal.

2.1.4. Adjudikaziodunak edukiak ekoizteko behar diren giza baliabideak jarri beharko ditu: gutxienez pertsona bi bilkurako.

2.1.4. El adjudicatario deberá aportar los recursos humanos para la producción de los contenidos: **al menos dos personas**

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **035aa4cb0afa9980aa77e87d1f946883de50dd1f**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202100000088**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO	**18/06/2021 11:44:26**

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo / Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

Bilkura Aretoan bertan egiten bada, pertsona horiek Pleno Aretoan egon beharko dute eta emanaldia handik egin. Ez da onartzen urrutiko kontrolaren bidezko emanaldirik. Era berean, adjudikaziodunak bidezkoak diren sistemak jarri beharko ditu osoko bilkuretako bideoak grabatu, erreproduzitu eta gordetzeko, baita errotulazio sistemak ere. Kontratistak eta, hala balitz, azpikontratistek zerbitzua euskaraz eta gaztelaniaz emango dela bermatu beharko dute. Bereziki, bilkurak birtransmititzeko edo emateko ardura dutenek hizkuntza biak menderatu beharko dituzte.

por sesión. En el caso de que la sesión se celebre presencialmente, esas personas deberán encontrarse y realizar la retransmisión desde el Salón de Plenos. **No se admite la retransmisión por control remoto**. Del mismo modo, el adjudicatario deberá aportar los sistemas pertinentes para grabar, reproducir y almacenar los videos de las sesiones plenarias, así como los correspondientes sistemas de rotulación. El contratista y, en su caso, los subcontratistas, deberán garantizar la prestación del servicio tanto en euskera como en castellano. En especial, las personas encargadas de la retrasmisión de las sesiones deberán dominar ambos idiomas.

2.1.5. Adjudikazioduna arduratuko da zerbitzua emateko behar den azpiegitura muntatzeaz eta desmuntatzeaz, osoko bilkuraren emanaldiaz eta grabazioa egiteaz, eta bilkura edo saioa Udalaren web orrian sartzeko Udaleko zerbitzu teknikoekin aritzeaz eta koordinatzeaz. Era berean, adjudikazioduna Udaleko langileekin koordinatuko da, osoko bilkurak behar bezala egiteko eta, ondoren, bideo-akta editatzeko behar diren lan guztiak egiteko, besteak beste, hauek:

- Idazkaritzak jakinaraziko ditu, bi egun baliodun lehenago, Osoko bilkuraren ezaugarriak (presentziala edo telematikoa den) eta gai-zerrenda, Word formatuan.

- Adjudikaziodunak dagokion URL(k) sortu beharko du/ditu Youtuben, bai aurrez aurreko saioetarako, bai saio telematikoetarako. Halaber, Idazkaritzari saio telematikoan sartzeko esteka eta pasahitza aurreko atalean adierazitako jakinarazpenaren egun berean jakinaraziko dizkio.
- Adjudikaziodunak Osoko bilkuraren kartel/irudi bat sortu beharko du (eguna, ordua eta tokia adierazita) eta Udalaren Youtubeko kanalean

2.1.5. El adjudicatario deberá encargarse de las tareas de montaje y desmontaje de la infraestructura necesaria para ofrecer el servicio, de la realización de la emisión y grabación de la sesión plenaria y de la asistencia y coordinación con los servicios técnicos municipales para integrar la retransmisión en la web del Ayuntamiento. Del mismo modo, el adjudicatario se coordinará con el personal municipal para llevar a cabo todas las tareas necesarias para la correcta celebración de las sesiones plenarias y posterior edición del video acta; entre otras:

- Secretaría comunicará, con dos días hábiles de antelación, las características de la sesión plenaria (presencial o telemática) y del orden del día en formato Word.
- El adjudicatario deberá crear la(s) URL(s) correspondiente(s) en Youtube, tanto para las sesiones presenciales como telemáticas. Asimismo, informará a Secretaría del enlace y contraseña de acceso a la sesión telemática el mismo día de la comunicación indicada en el apartado anterior.
- El adjudicatario deberá crear un cartel/imagen de la sesión plenaria (indicando fecha, hora y lugar) e insertarlo en el canal de Youtube

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **035aa4cb0afa9980aa77e87d1f946883de50dd1f**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202100000088**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO	**18/06/2021 11:44:26**

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo / Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

sartu, bilkura baino 4 egun natural lehenago.

- Idazkaritzak saio telematikoan parte hartzeko eskaera egin duten Udalaz kanpoko pertsonen nortasunaren eta haien posta elektronikoaren berri emango du, galdera-erreguen puntua amaitu ondoren.
- Bilkura bakoitza bukatutakoan, adjudikaziodunak Udalaren Youtube kanaleko Osoko bilkuren erreprodukzio-zerrendan sartu beharko du, izenburua euskaraz eta gaztelaniaz duela.
- Idazkaritzak, bilkura egin eta bi egun balioduneko epean, Word dokumentua bidaliko du bozketen emaitzen edukiarekin, bideo-aktan txertatzeko.

- Idazkaritzak akta PDF formatuan bidaliko dio adjudikaziodunari, hura onartu ondoren (normalean, hurrengo ohiko bilkuran) plataforman sartzeko. Agiri horretan jasoko dira bilkurako gai-zerrendaren puntu guztiak, bozketen emaitzak eta eranskinak.

- Adjudikaziodunak akta bidaliko du Idazkaritzako eta Alkatetzako titularren sinadura elektronikoa ahalbidetzeko.

- Adjudikaziodunak bideo-aktak argitaratzen diren plataformaren esteka Komunikazio Zerbitzura bidali beharko du, Udalaren web orrian sartu ahal izateko.

del Ayuntamiento con una antelación de 4 días naturales.

- En el caso de sesiones telemáticas, Secretaría informará de la identidad y correo electrónico de las personas ajenas al Ayuntamiento que hayan solicitado participar en la sesión, al concluir el punto de ruegos y preguntas.
- Una vez finalizada cada sesión, el adjudicatario deberá incluirla en el listado de reproducción de Plenos del canal de Youtube del Ayuntamiento con el título en euskara y castellano.
- Secretaría remitirá, en el plazo máximo de dos días hábiles posteriores a la celebración de la sesión, documento Word con el contenido del resultado de las votaciones para insertar en el video acta.
- Secretaría remitirá al adjudicatario el acta en formato PDF una vez aprobada (normalmente en la siguiente sesión ordinaria) para su incorporación a la plataforma. Dicho documento comprenderá los diferentes puntos del orden del día de la sesión, el resultado de las votaciones y anexos.

- El adjudicatario remitirá el documento que permita la firma electrónica por parte de las personas titulares de la Secretaría y la Alcaldía.
- El adjudicatario deberá remitir al Servicio de Comunicación el enlace de la plataforma en la que se publiquen las video actas para poder incorporarlo a la web municipal.

2.1.6. Baldintza orokorrak:

- Plataforma osoa euskaraz eta gaztelaniaz ikusteko aukera izan behar da. Sistemak euskarazko eta gaztelaniazko azpitituluak ikusteko

2.1.6. Consideraciones Generales:

- Toda la plataforma deberá poder visualizarse en euskera y castellano. El sistema debe permitir la visualización de subtítulos en

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **035aa4cb0afa9980aa77e87d1f946883de50dd1f**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202100000088**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO	**18/06/2021 11:44:26**

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo / Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

aukera eman behar du, aurretiaz grabatutako Osoko bilkuren edukietara noiznahi sartu ahal izateko. Aurretik, azpitituluek Udal Idazkaritzaren eta Udal Itzulpen Zerbitzuaren oniritzia jasoko dute. Horrek esan nahi du udal zerbitzuek ez dutela itzulpen-lanik egingo, haien eginkizun bakarra izango da adjudikaziodunak aurkeztutako errotuluak gainbegiratzea. Gai-zerrendako gaien azpititulazioa Idazkaritza Sailak emandako Word dokumentutik aterako da, bi egun baliodun lehenago bidaliko dena.

euskera y castellano para facilitar el acceso diferido a los contenidos de los Plenos municipales. La subtitulación deberá ser revisada previamente por el servicio de Traducción y la Secretaría municipales, lo que implica que los servicios municipales no realizarán labores de traducción, sino, única y exclusivamente, de supervisión de los rótulos presentados por el adjudicatario. No obstante, la subtitulación de los asuntos del orden del día se extraerá del documento Word facilitado por el Departamento de Secretaría con una antelación de dos días hábiles.

- Plataformak hauxe izango du:
  - Gai-zerrendako puntuen aurkibide minutatua, bai eta Idazkaritza Sailak bideo-aktan gerora sartzea beharrezkotzat jotzen duen edozein zuzenketa ere.
  - Eguneko gai-zerrendaren puntu bakoitzean egindako bozketen emaitza.
- Plataforma bateragarria izango da gehien erabiltzen diren nabigatzaileekin: Chrome Edge, Mozilla Firefox, Safari eta Opera.

- La plataforma incluirá:
  - El índice minutado de los puntos del orden del día, así como cualquier corrección posterior que el Departamento de Secretaría considere necesario incluir en el video acta.
  - El resultado de las votaciones practicadas en cada punto del orden del día.
- La plataforma será compatible con con los navegadores de uso más extendido: Chrome Edge, Mozilla Firefox, Safari y Opera.

- Edukia ikusteko, gutxienez, mahai gaineko ordenagailuak, smartphone gailuak eta tabletak erabili behar dira, Windows, Android eta IOS sistema eragilea dutenak.
- Sistemak aukera eman behar du esku har dezakeen pertsona bakoitzarentzat kamera-fokuratze desberdinak definitzeko, bai eta saioa egiten den aretoarenak ere. Bereziki, Udalbatzako kide guztien

- La visualización del contenido debe estar soportada en, al menos, dispositivos del tipo ordenadores de sobremesa, dispositivos smartphones y tablets, con sistema operativo Windows, Android e IOS.
- El sistema debe permitir definir diferentes enfoques de cámara para cada una de las personas potencialmente intervinientes, así como de la sala en la que tenga lugar la sesión. En especial, se

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **035aa4cb0afa9980aa77e87d1f946883de50dd1f**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202100000088**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO	**18/06/2021 11:44:26**

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo / Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

fokuratze orokorra hartu beharko da bozketa uneetan. Adjudikaziodunak gai horren inguruan Udal zerbitzu teknikoek gai honen inguruan egiten dituzten eskaerei erantzun beharko die.	realizará un enfoque general de todos los miembros de la Corporación en los momentos de votación. El adjudicatario deberá atender las peticiones que sobre esta cuestión realicen los servicios municipales.
• Sistemak osoko bilkuraren gai-zerrendako puntuak sartzeko aukera eman behar du kanpoko aplikazioetatik, trukerako XML fitxategietatik, eskuz edo sistemen arteko komunikazio-interfazeen bidez.	• El sistema debe permitir incorporar los puntos del orden del día del Pleno desde aplicaciones externas a la solución, desde ficheros XML de intercambio, manualmente o mediante interfaces de comunicación entre sistemas.
• Sistemak bermatu behar du grabazioak ez direla manipulatuko grabazioa hasten denetik egiaztatze-kode bat sortuko duen ziurtagiri digitalaren bidez sinatu arte. Idazkaritzako eta Alkatetzako titularrek sinatuko dute ziurtagiria.	• El sistema debe garantizar la no manipulación de las grabaciones desde que comienza la grabación hasta su firma mediante certificado digital que genere un código de verificación. El certificado será firmado por las personas titulares de la Secretaría y de la Alcaldía.
• Osoko bilkurak adjudikaziodunak duen plataformaren bidez emitituko dira. Hark izango du zuzeneko emanaldia Eibarko Udalaren YouTubeko kontu ofizialarekin lotzeko ardura eta erantzukizuna. Bilkurak telematikoki egiten direnean ere erabiltzen den aplikazioa Youtubeko kontu horrekin lotu beharko da.	• Las sesiones plenarias se emitirán a través de la plataforma con la que cuente el adjudicatario, quien se responsabilizará de enlazar la retransmisión en directo con la cuenta oficial de YouTube del Ayuntamiento de Eibar. Cuando las sesiones se emitan telemáticamente también deberá enlazarse la aplicación que se utilice con dicha cuenta de YouTube.
• Kontratatuko zerbitzuen emaitza, osorik edo edozein fasetan, Eibarko Udalaren jabetzakoa izango da, eta, ondorioz, Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du zerbitzua osatzen duten dokumentuak edo materialak entregatzeko. Kontratuaren xede diren zerbitzu guztien ustiapen-eskubideak Eibarko Udalaren jabetza esklusiboan geratuko dira, eta ezin izango dira osorik edo zati	• El resultado de los servicios contratados, en su totalidad o en cualquiera de sus fases, será propiedad del Ayuntamiento de Eibar, y éste, en consecuencia, podrá recabar en cualquier momento las entregas de los documentos o materiales que la integren. Los derechos de explotación de todos y cada uno de los servicios objeto del contrato quedará en propiedad exclusiva del

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **035aa4cb0afa9980aa77e87d1f946883de50dd1f**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202100000088**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO	**18/06/2021 11:44:26**

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo / Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

batean erreproduzitu, haren baimena aldez aurretik eta berariaz izan gabe; Udalak, bere aldetik, zerbitzuok eraldatu eta garatu ahal izango ditu premien arabera.

Ayuntamiento de Eibar, sin que puedan ser reproducidos total o parcialmente sin previa y expresa autorización del mismo, pudiendo éste a su vez transformarlos y desarrollarlos en función de las necesidades.

- Zerbitzua amaitutakoan, adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du Eibarko Udalaren jabetzako artxibo guztiak bere unean adieraziko den tokira eskatutako formatuan eramateko.

- Finalizado el servicio, el adjudicatario se compromete a trasladar todos los archivos propiedad del Ayuntamiento de Eibar al lugar y en el formato que en su momento se indique.

- Sistemak aretoan audioa atzitzeko aukera eman behar du.

- El sistema debe permitir capturar audio en la sala.

- Eibarko Udalak adjudikaziodunaren esku jarriko du banda zabalerako sarbidea, planteatzen den soluzioa instalatzeko.

- El Ayuntamiento de Eibar pondrá a disposición del adjudicatario el acceso a banda ancha para la instalación de la solución que se plantee.

- Udal langileentzako erabiltzaile eta profilen kudeaketa, bideo-akta sortzearekin zerikusia duten eginkizun guztiak kudeatzeko.

- Gestión de usuarios y perfiles para el personal municipal con el fin de gestionar todas las funciones relacionadas con la generación del video acta.

3. BIDEO-AKTAK SORTZEA

3.1. Akta bat sortuko du formatu elektronikoan, dokumentuak txertatuta eta elektronikoki sinatuta.

3.2. Osoko bilkurako akten kudeaketari dagokionez, zerbitzuak datu hauek jaso beharko ditu: eguna, ordua, tokia, gai-zerrenda, Osoko Bilkuraren audioa eta bideoa, akta osoa onetsi ondoren, eta beste eranskin dokumentalak. Era berean, bozketen emaitzak ere jasoko ditu.

3.3. Interbentzio bakoitzerako sarbidea, hasieratik bukaeraraino.

3. GENERACIÓN DE VIDEO ACTAS

3.1. Generará un acta en formato electrónico con los documentos integrados y firmado electrónicamente.

3.2. En lo relativo a la gestión de las actas plenarias, el servicio deberá incluir los datos sobre fecha, hora, lugar de celebración, el orden del día, el audio y video del Pleno, acta completa una vez aprobada, así como otros anexos documentales. Asimismo, recogerá los resultados de las votaciones.

3.3. Acceso a cada una de las intervenciones, desde su inicio hasta el final de las mismas.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **035aa4cb0afa9980aa77e87d1f946883de50dd1f**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202100000088**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO	**18/06/2021 11:44:26**

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo / Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

3.4. Bilkura bakoitzeko bideo-akta plataforman argitaratu beharko da, bilkura egin eta gehienez ere lau egun balioduneko epean.

3.4. El video acta de cada sesión deberá publicarse en la plataforma en el plazo máximo de cuatro días hábiles posteriores a su celebración.

4. AUTENTIFIKAZIOA ETA SINADURA ELEKTRONIKOA

4.1. Sistemak aukera emango du, sinadura aurreratu eta aitortuarekin, multimedia-akta eta akta idatzia hainbat ziurtagirirekin (@sinadura plataforman onartutakoak) elektronikoki sinatzeko, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen baldintza guztiak betetzen baditu, bai eta aplikatu beharreko gainerako araudiarenak ere.

4. AUTENTICACIÓN Y FIRMA ELECTRÓNICA

4.1 El sistema permitirá firmar electrónicamente, con firma avanzada y reconocida, el acta multimedia y el acta escrita con múltiples certificados (aquellos aceptados en la plataforma @firma), que cumpla todos los requisitos de las Leyes 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, así como del resto de la normativa aplicable.

4.2. Sistemak aukera emango du XadES sinaduraren estandarra erabiltzeko.

4.2 El sistema permitirá usar el estándar de firma XadES.

4.3. Sistemak aukera emango du sinaduraren emaitza Udalaren tresna independenteekin egiaztatzeko.

4.3 El sistema permitirá comprobar el resultado de la firma con herramientas independientes suministradas por el Ayuntamiento.

4.4. Erabilitako sinadura elektronikoaren sistema justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du lizitatzaile bakoitzak. Dokumentazio hori administrazio-baldintza berezien agirian adierazitako eran aurkeztuko da.

4.4 Cada licitador deberá aportar la documentación que justifique el sistema de firma electrónica utilizado. Dicha documentación se aportará en los términos indicados en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

5. WEBGUNEAN ARGITARATZEA

5.1. Osoko bilkuren bideo-aktak webgunean edo egoitza elektronikoan argitaratuko dira, eta Osoko bilkuren bideo-aktak Informatika sailak adjudikaziodunari ematen dion helbide elektronikoan artxibatuko dira.

5. PUBLICACIÓN EN WEB

5.1. Publicación en la web o sede electrónica de las video actas de sesiones del Pleno y del archivo de video actas de sesiones del Pleno en la dirección electrónica que será facilitada al adjudicatario por el Departamento de Informática.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **035aa4cb0afa9980aa77e87d1f946883de50dd1f**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202100000088**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO	**18/06/2021 11:44:26**

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo / Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

5.2. Sistemak hainbat aukera emango ditu administratzailea eduki publikora sar dadin.	5.2. El sistema dispondrá de diferentes vías de acceso al contenido público por parte del administrador.
5.3. Erabilitako irudi guztiak optimizatuta egongo dira, pixelen (Retina Display) dentsitate handiko pantailetan ikusi ahal izateko.	5.3. Que todas las imágenes empleadas estén optimizadas para ser vistas en pantallas de alta densidad de pixeles (retina display).
5.4. Webgunean bertan jakinaraziko da noiz diren zuzeneko emanaldiak.	5.4. Que notifique en la misma web las emisiones en directo.
5.5. Orri nagusitik jakinaraziko da noiz diren hurrengo zuzeneko emanaldiak.	5.5. Que informe de las siguientes emisiones en directo desde la página principal
5.6. Aukera eman behar du klik bakar batean gai-zerrendako edozein punturen edo edozein Udalbatzarkideren interbentzioren audioa deskargatzeko.	5.6. Que posibilite descargar en un solo click el audio de cualquier punto del orden del día o intervención individual de cualquier miembro de la Corporación
5.7. Udal Osoko bilkura bakoitzean bilaketa independenteak egiteko aukera eman behar du, parte-hartzaileak, gai-zerrendako gaiak edo beste edozein kontzeptu hautatzeko.	5.7. Que posibilite para cada Pleno búsquedas independientes para filtrar intervinientes, asuntos del orden del día o cualquier otro concepto.
5.8 Aukera emango du, lagunduta, bideoak ateratzeko, kanpoko webguneetan argitaratzeko.	5.8. Que posibilite extraer de manera asistida vídeos para publicarlo en sitios web externos.
5.9. Aukera emango modu automatikoak kode-lerro bat sortzeko, atariko bideoak beste hirugarrenen webguneetan txertatu edo kapsulatu ahal izateko.	5.9. Que posibilite la generación automatizada de una línea de código embebido para facilitar a terceros la publicación de videos alojados en el portal.
6. INDEXAZIOA ETA BILAKETA	**6. INDEXACIÓN Y BÚSQUEDA**
6.1. Tituluaren eta edukiaren arabera akordio eta erabaki zehatzak bilatu ahal izango dira, eta bilaketa horren emaitzaren zerrenda kronologiko bat aurkeztuko da, bilkuraren datarekin.	6.1. Búsqueda por título y contenido de acuerdos y deliberaciones concretos, con presentación de una lista cronológica, por fecha de sesión, de los resultados de la búsqueda.
6.2. Bideoen edukiaren zerrenda bat egongo da, zuzenean jo ahal izateko eguneko gai-zerrendako puntu guztietara,	6.2. Relación de contenido de cada video para que pueda accederse de forma directa a todos los puntos del orden del día

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **035aa4cb0afa9980aa77e87d1f946883de50dd1f**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202100000088**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO	**18/06/2021 11:44:26**

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo / Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

eta bilkuran egiten diren interbentzio jakinetara.	y a las intervenciones concretas que se produzcan en la sesión.
6.3. Osoko bilkura batean bilatutako gai-zerrendaren puntua erraz topatu ahal izango da, jakinda edo jakin gabe zein den bilkura hori.	6.3. Localizar de forma ágil el punto del orden del día buscado de un Pleno, sabiendo a priori o no la sesión deseada.
6.4. URL bakarra sortuko da bideo bakoitzeko.	6.4. Que se genere una URL única de cada vídeo.
6.5. URL helbide baten bidez bideoaren denbora jakin batera joateko aukera egongo da.	6.5. Que se pueda dirigir a un tiempo determinado del video mediante una dirección URL.
6.6. URL helbide baten bidez mozio jakin batera joateko aukera egongo da.	6.6. Que se pueda dirigir a una moción concreta mediante una dirección URL.
6.7. Bideoak gero egin daitezkeen bilaketetarako etiketatu ahal izango dira.	6.7. Que los vídeos se puedan etiquetar para posteriores búsquedas.
7. ESTANDARRAK ETA LEGE-BETEKIZUNAK	**7. ESTÁNDARES Y REQUISITOS LEGALES**
7.1. Plataformak beteko ditu legez ezarritako erabilerraztasun- eta erabilgarritasun-betekizunak.	7.1. La plataforma cumplirá los requisitos de accesibilidad y usabilidad establecidos legalmente.
7.2. Datu pertsonalen babesa. Adjudikaziodunak bermatuko du datu pertsonalak babesteko indarrean dauden arauak eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziak argitaratutako gomendioak betetzen direla, bereziki bideo-grabazioei buruzkoak.	7.2. Protección de datos personales. El adjudicatario asegurará el cumplimiento de las normas vigentes de protección de datos personales y de las recomendaciones publicadas por la Agencia Española de Protección de Datos que sean de aplicación, en especial las referidas a videograbaciones.
7.3. Erabilerraztasuna. Bermatuko da administrazio publikoetako webguneetarako legez ezarritako erabilerraztasun-mailak betetzen direla: une honetan World Wide Web partzuergoko WAI/WCAGek zehaztutako AA maila. Adjudikaziodunak agiriekin egiaztatu beharko du hori, administrazio-klausula berezien agirian ezarritako moduan.	7.3. Accesibilidad. Se garantizará el cumplimiento de los niveles de accesibilidad impuestos por ley para las páginas web de las administraciones públicas: en este momento el nivel AA definido por el WAI/WCAG del consorcio World Wide Web. El adjudicatario deberá acreditar documentalmente este extremo en los términos establecidos por el pliego de cláusulas administrativas particulares.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **035aa4cb0afa9980aa77e87d1f946883de50dd1f**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202100000088**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO	**18/06/2021 11:44:26**

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo / Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

7.4. Pribatutasunaren, erabilera-arauen eta abarren inguruko lege-oharrei buruzko informazioa bermatuko zaie honen eraginpean egon daitezkeen guztiei.

7.4. Se garantizará la información a todos los posibles afectados de los términos legales sobre privacidad, normas de utilización, etc.

7.5. Sistemak aukera eman behar du Osoko bilkurak denbora errealean streamingen bidez ikusteko, edozein gailu finko edo mugikorretatik, modu errazean, erabiltzaileei inolako ordainketa-erremintarik eskatu gabe.

7.5. El sistema debe permitir la visualización de los Plenos en tiempo real mediante streaming, desde cualquier dispositivo fijo o móvil, de forma sencilla, sin ningún requerimiento de herramientas de pago para los usuarios.

7.6. Adjudikaziodunak bermatuko du bideo-akten elkarreragingarritasuna, Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalaren arabera, eta beste sistema batzuetara transferitzea, dagozkien metadatu deskribatzaileekin batera, haien benetakotasuna eta osotasuna galdu gabe, ezta haietako bakoitzaren eta akordioen eta interbentzioen indizeen arteko loturak ere. Adjudikaziodunak agiriekin egiaztatu beharko du hori, administrazio-klausula berezien agirian ezarritako moduan.

7.6. El adjudicatario garantizará la interoperabilidad de las videoactas, de acuerdo con el Esquema Nacional de Interoperabilidad, y su transferencia a otros sistemas, con los metadatos descriptivos correspondientes, sin pérdida de su autenticidad e integridad ni de las asociaciones de cada una de ellas con los índices de acuerdos e intervenciones. El adjudicatario deberá acreditar documentalmente este extremo en los términos establecidos por el pliego de cláusulas administrativas particulares.

8. ZERBITZUAREN MANTENTZE-LANAK ETA BIDEO-AKTAK BABESTEA

8. MANTENIMIENTO DEL SERVICIO Y PRESERVACIÓN DE LAS VIDEO ACTAS

8.1. Kontratua indarrean dagoen bitartean, adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du zerbitzua mantentzeko eta gertatzen diren gorabehera guztiak konpontzeko. Aktak eta bideo-aktak adjudikaziodunaren zerbitzarietan biltegiratu, mantendu eta zainduko dira, eta dagozkion segurtasun-politikak aplikatu beharko ditu, hondamendirik gertatuz gero datuak berreskuratuko direla bermatzeko.

8.1. El adjudicatario se comprometerá durante la duración del contrato al mantenimiento del servicio y a la resolución de cuantas incidencias se registren durante la vigencia del mismo. Las actas y las videoactas se almacenarán, mantendrán y custodiarán en los servidores del adjudicatario que deberá de aplicar las correspondientes políticas de seguridad para garantizar la recuperación de los datos en caso de desastre

8.2. Bideo-akten sisteman antzematen diren gorabeherei erantzuteko denbora gehienez ere 48 ordukoa izango da, gorabeheraren abisutik teknikariaren diagnostikora arte zenbatuta.

8.2. El tiempo de atención de las incidencias que se detecten en el sistema de video actas será de un máximo de 48 horas, contando desde el aviso de la incidencia hasta el diagnóstico del técnico.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **035aa4cb0afa9980aa77e87d1f946883de50dd1f**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202100000088**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO	**18/06/2021 11:44:26**

Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo / Erakunde-zigilu elektronikoarekin sinatuta / Firmado con sello electrónico de Organismo

9. MARTXAN JARTZEKO EPEA

Kontratua sinatu ondoren, adjudikaziodunak zerbitzua oso-osorik eta berme guztiekin emateko moduan egon beharko du.

9. PLAZO DE PUESTA EN MARCHA

Una vez firmado el contrato, el adjudicatario deberá estar en disposición de prestar el servicio en su integridad y con todas las garantías.

10.- KOSTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

Ezingo da inolako gainkosturik sartu lizitazio-prezioan. Eskaintzak agiri honetan eskatutako zerbitzu guztiak estali behar ditu.

Garraio-gastuak, udal lokaletan entregatzearen gastuak eta gainerako gastuak lizitazio motan sartuta egongo dira.

10.- INFORMACION SOBRE COSTES

No será posible incluir ningún sobrecoste sobre el precio de licitación. La oferta deberá cubrir la totalidad de los servicios exigidos en el presente pliego.

Los gastos de transporte, entrega en las dependencias municipales y el resto de gastos que se pudieran ocasionar, estarán incluidos en el tipo de licitación.

Juan Agustín Villafranca (Udal idazkaria)

Juan Agustín Villafranca (Secretario Municipal)

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **035aa4cb0afa9980aa77e87d1f946883de50dd1f**
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **DS-202100000088**
https://pegora.eibar.eus/impulsa/csvValidation.do

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO	**18/06/2021 11:44:26**